



Usurbilgo Udala

2024/05/14

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2024KO MAIATZAREN 14EAN
GOIZEKO 9:40EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Ainhoa Arrozpide Landa, Iratxe Begiristain Otegi eta Xabat Beloki Segurola.

Idazkaria: Xabin Juaristi Arrieta.

Ez da bertaratu: Joxe Mari Lizaso Azkonobieta.

1.- 2024KO APIRILAREN 30EKO AKTA ONARTZEA.

Batzarkideek 2024ko apirilaren 30eko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- USURBILGO UDALAREN KIROL INSTALAKUNTZEN GARBIKETA ZERBITZUA
ESLEITZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA (2024LIRZ0002).**

Kontratuaren gaia eta helburua: Usurbilgo Udalaren kirol instalakuntzen garbiketa zerbitzua esleitzea.

Unitate sustatzailea: Kirol saila

Kontratu mota: zerbitzu kontratua.

Prozedurari dagokionez

Espediente-mota: ohiko tramitazioa du.

Esleipena egiteko bidea eta modua: Prozedura irekia eta izapide arruntaren bidez.

Baldintza Orriak: Espedientearekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio Baldintza Zehatzen Orriak eta Preskripzio Teknikoak doaz.

Araudi aplikagarria

1.- Azaroaren 9ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen Legea eta urriaren 12ko 1098/2001 Erregelamendua.

2.- Administrazio baldintza zehatzen orriak eta Preskripzio Teknikoak.



Usurbilgo Udala

2024/05/14

Txostenak

- Teknikariaren memoria.
- Idazkaritzako lege txostena.
- Kontu-hartzailearen ziurtagiria:

Kontratua esleitzeko eskuduntza

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 2. Xedapen Gehigarriaren 1. eta 2005eko abenduaren 12ko Alkatetzako Dekretua ikusita, kontratua esleitzeko eskuduna Usurbilgo Tokiko Gobernu Batzarra da, kontratazio honek udal aurrekontuaren errekurtsio arruntetik %5etik gorakoa eta %10etik beherakoa denez.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENA: Prozedura irekia arruntaren bitartez Usurbilgo Udalaren kirol instalakuntzen garbiketa zerbitzu kontratu erreserbatua esleitzeko kontratazio espedienteari onespina ematea.

BIGARRENA: Aipatu zerbitzu kontratua gauzatzeko, jarduteko eta esleipenerako oinarri bezala erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzen Orriak eta Preskripzio Teknikoen Orriei onespina ematea.

HIRUGARRENA: 2024 urteko aurrekontuan %21eko BEZ barne 80.000 euroko gastu estimazioa onartzea, 1 4300.227.342.00.01 2024 kontu-sailaren kontura (RCT 753-2024).

LAUGARRENA: Kontratua erregulazio harmonizatukotzat jo behar denez, lizitazio iragarkia DOUEra bidaltzea eta udaleko kontratatzaile profilean argitaratzea.

3.- EGIOLETATXIKI BASERRIAN MOLDATUTAKO BI ETXEBIZITZEI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA (2022OHAN0018).

Esp. Zenbakia: HZ.04/2020-0247
2022-OHAN-0018

AITOR EIZAGIRRE GOIKOETXEA jaunak, Egioletatxiki baserrian (Kalezar 77) bi etxebizitza moldatzeko legeztapen proiektua aurkeztu du.

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, 2024ko maiatzaren 9an, ALDEKO txostena eman du. Hitzez hitz honela dio:

18_2022OHAN18

BULEGO TEKNIKOA



Usurbilgo Udala

2024/05/14

Udal Teknikariak Alkate andreari
OBRA HANDIAK
EGIOLETATXIKI BASERRIAN (KALEZAR 77) BI ETXEBIZITZA
MOLDATZEKO LEGEZTATZE PROIEKTUARI TXOSTENA

ESKATZAILEA: Aitor Eizagirre Goikoetxea
ESKAERA: Legeztatze Proiektua
ESKAERA DATA: 2023-07-07
KOKAPENA: Kalezar, 77 Usurbil
ESPEDIENTE ZENBAKIA: 2022-OHAN-018 (HZ.04 / 2020-0247)
OBRAREN AURREKONTUA (PEM): 23.701,29 euro

2024ko apirilaren 3an Aitor Eizagirre Goicoecheak dokumentazio osagarria aurkeztu du.

AURREKARIAK

2022ko uztailaren 16an interesatuak legeztatze proiektua aurkeztu du
2023ko uztailaren 7an interesatuak legeztatze proiektua aurkeztu du
2023ko irailaren 3an udal arkitektoak kontrako txostena idatzi zuen honako dokumentazio osagarria aurkeztu artean:

1. Planoak: oin, sekzio eta altxaera akotatuak, eta instalazioei dagozkienak.
2. Bizigarritasun baldintzen justifikazioa

Erlazionatutako espedienteak:

HZ.04/2020-247: Egioletatxiki baserrian bi etxebizitza moldatzeko baimena

HZ.13/13/2020-036: Egioletatxiki baserrian bi etxebizitza moldatzeko aukeraz hirigintza kontsulta.

HZ.04/2005-0506: Egioletatxiki baserria eraberritzeko udal baimena.

TXOSTENA

Aurrekarietan esan bezala, Aitor Eizagirre Goicoecheak dokumentazio osagarria aurkeztu du Egioletatxiki baserrian bi etxebizitza moldatzeko Legeztatze Proiektua osatzeko. Eskaera orriarekin batera aurkeztu dira bizigarritasun baldintzak betetzearen justifikazioa eta instalazioen plano akotatuak (oinak, sekzioak eta altxaerak).

Dokumentazioa aztertuta esan behar da 2023ko irailaren 3an emandako txosten teknikoan eskatutakoari erantzuten diola eta ontzat ematen dela.

SEGREGAZIO BAIMENA: 2020ko abuztuaren 17an udal arkitektoak honako baldintza hau jarri zuen Egioletatxiki baserriko bi etxebizitza segregatu ahal izateko:



Usurbilgo Udala

2024/05/14

Segregazio baimena lortzeko, aurrez eraikinean baimenik gabeko obrak, bi etxebizitza erabilera ahalbidetzen dutenak, legeztatu beharko dira.

2020ko uztailaren 16an aurkeztutako Segregazio Proiektuak erregistroko ziurtagiria, gaur egungo egoeraren planoak, eta ondoriozko egoeraren planoak barneratzen ditu. Dokumentazioa aztertuta esan behar da Segregazio Proiektu batek jaso beharrekoak barneratzen dituela eta baldintzak betetzen dituela segregatu ahal izateko.

ONDORIOA

Gauzak horrela, Egioletaxiki baserrian bi etxebizitza moldatzeko Legeztatze Proiektuari ALDEKO txostena idazten zaio, eta honako hau proposatzen da:

LEHENA: Egioletaxiki baserrian moldatutako bi etxebizitzei LEHEN ERABILERA baimena ematea.

BIGARRENA: Interesdunei jakinaraztea hilabeteko epean honako dokumentu hauek aurkeztu behar dituztela:

- Banaketa horizontalaren eskritura. Agirian jaso beharko da lursaila bi etxebizitzei lotuta egongo dela.
- Etxebizitza berriak Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan alta eman izanaren frogagiria.

Hori da behean sinatzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste batzuen kaltetan izan gabe, Udalarari jakinarazten zaiona, dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, sinadura-datan.
Udal Arkitektoa

Izta.: Amaia Illarreta Izeta

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Egioletaxiki baserrian moldatutako bi etxebizitzei LEHEN ERABILERA baimena ematea, ondorengo baldintza berezi hauek betetzekotan:

- Eraikinaren *banaketa horizontalaren deklarazioa* egingo da, bi etxebizitzak jasoz,



Usurbilgo Udala

2024/05/14

eta baserriaren lur guztiak *elementu komun zatiezinak* bezala ezarriko dira. Hilabeteko epean aurkeztu beharko da udaletxean dagokion eskritura.

- Etxebizitza berriei udal erroldan alta eman aurretik, hilabeteko epe barruan, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan alta eman beharko zaie U-4 inprimakiaren bitartez. Beraz, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan alta eman aurretik inork ezingo du etxebizitza berrian erroldatu.

Etxebizitza berriak honakoak dira:

- Kalezar 76A, ezker
- Kalezar 76A, eskuin

BIGARRENA: Erabaki hau interesatuei, udal erroldako arduradunari, ur zerbitzuaren ordainketa-erroldaren arduradunari, Errenta eta Ondare Teknikaria, Kontuhartzaileari ematea.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:50k direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.